



txi kitto!

Eman bostekoa **EUSKERARi**



**Abenduak 3
Euskeraren Eguna**

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

Maialen Belaustegi.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Txiki Leak

● – Josetxo! Aldatu
al diezu ura arrain
gorrixkei?

– Zera aldatuko nien!
Oraindik ez dute joan den
astekoa bukatu eta!



● Bittor negarrez dator
eskolatik eta amak galdetzen
dio :

– Zer duzu Bittor, horrenbeste
negar egiteko?
– Andereñoak zigortu egin nau ...
– Hara! Eta zergatik zigortu zaitu?
– Bere galdereri erantzuteagatik.
– Gaizki erantzun diozu, noski ...
– Ez, ez. Nik ondo erantzun diot...
Zeinek sartu duen sagua bere poltsan galdetu du eta ni
izan naizela erantzun diot.



● Gaztea arrantzan ari zela,
paseoan zebilen gizon heldu
bat hurbildu zitzaion. Bost
bat minutuz isilik begira egon
ondoren, haxe galdetu zion,
irribarre maltzur batekin:

– Zeharo aspergarria izan behar
du, bada, orduak eta orduak
geldirik egotea, arrainek amuari
noiz irentsiko zain, ezta?
– Ez pentsa! —erantzun zion
arrantzaleak— Asko dira hizketarako gogoz
inguratzen zaizkigun babalorak.



● Anek amari esaten dio:
– Ama, ama zer duzu tripa
barruan?

– Umetxo bat Ane.
– Umetxo bat jan duzu?



● Gizon bat txori
dendara sartu zen eta
loro elebiduna eskatu
zuen. Dendariak hanka
bakoitzean soka bana
zuen bat erakutsi zion.

- Ezkerreko sokatik tira
eginez gero, euskaraz hitz egingo dizu –
azaldu zion saltzaileak- eta eskuinekotik tira
eginez gero, katalanez.

- Aizu, eta bietatik batera tira egiten
badiot?- galdetu zion bezeroak.

- Zozoa halakoa! Lurrera joango naiz mokoz
aurrera!– erantzun zion loroak.



● Umea jolastokian
jolasten dago eta bere
amak haxe esaten dio:

- Ume! Ez jolastu lurrarekin!

Orduan umea espaziora
joan zen.



● Gizon bat farmazia batera
sartu da eta galdetu du:

- Ba al daukazue azido
azetil salizilikoa?
-Aspirina, esan nahi duzu, ez?
-A!! Kontxo! Izena ahaztuta
neukan.



● Ume batek maisuari
haxe galdetu zion:

- Lurrak zenbat
pisatzen du?

Eta maisuak
erantzun zion,
- 128.239.496
tona.

Jarraian, umeak haxe galdetu
zion:

- Baina, jendearekin edo
jenderik gabe?





● Andereño berri bat
sartzen da gelan eta
esaten du:

- Tentela sentitzen dena
zutik jar dadila.
Peru bere aulkitik jaikitzen
da eta andereñoak
galdetzen dio :

- Tentela sentitzen zara?
- Ez, andereño, pena ematen dit zu bakarrik zutik
egoteak.



Gipuzkoako Foru Aldundia



Hizki-zopa

I	F	A	R	K	A	L	E	U	Z	B	V	C	I
F	H	S	T	A	V	O	O	K	H	U	U	F	H
Q	D	U	K	A	L	B	E	T	O	N	U	Q	E
L	A	R	R	A	G	U	E	T	A	R	E	K	Z
E	F	Q	E	N	H	T	X	O	N	T	A	G	U
U	R	K	I	Z	U	I	H	J	I	Y	T	Q	U
P	H	A	R	R	A	T	E	B	I	D	E	K	O
E	S	T	A	Z	I	N	O	N	U	X	H	H	O
E	A	A	E	A	U	R	H	I	F	W	X	I	U
A	T	O	Y	C	B	A	R	R	E	N	A	L	S
U	E	R	R	E	B	A	L	A	N	A	E	K	F
Y	T	O	N	H	G	W	U	I	B	R	O	P	D
V	K	Q	D	I	N	T	Y	A	Y	Z	X	Q	E
O	E	H	A	F	H	X	W	Y	A	W	D	W	S

Eibarko kaleak

URKI	ARRAGUETA
ERREBAL	KALBETON
ARRATEBIDE	URKIZU
TXONTA	ESTAZINO
IFARKALE	BARRENA

Egilea: Aiora Unzeta


Hizki-zopa

O	X	H	W	I	T	Y	U	N	R	I
X	I	Z	S	A	N	D	P	A	F	G
H	Y	L	K	O	A	C	O	R	E	E
N	N	O	I	N	B	H	A	K	R	
A	P	R	W	S	G	Y	J	N	L	E
R	S	O	I	W	T	M	O	J	H	Z
R	T	U	X	Y	V	A	I	A	B	I
U	Z	A	F	C	E	D	K	A	T	A
B	H	B	G	D	G	A	T	Z	A	K
I	I	H	G	L	Y	R	B	I	H	I
A	X	E	R	R	A	I	R	X	E	R
O	N	E	L	O	P	A	X	E	R	M

- Janariak:**
- 1- Dilistak
 - 2- Hambiak
 - 3- Holenta
 - 4- Naranja
 - 5- Kiwi
 - 6- Helopa
 - 7- Gereziak
 - 8- Sandia
 - 9- Xerra
 - 10- Gatza

Egilea: Uxue Lopez

Gurutzegrama



HORIZONTALAK

- 3- Animaliarik txikiena
- 5- 5-ek egite ibizen dena
- 6- Famatuena botaduna da
- 7- Platano jate piltsaina
- 8- Iturri kol bezela botatzen du ura
- 9- Giza baren lagunik onena
- 10- Saguen belar dena


BERTIKALAK

- 1- Lepoko gehien erabili ditakiena
- 2- Musuak eraten ibiltzen den animalia
- 4- Mairidorea gantzaita daraman animalia

Egilea: Aiora Unzeta

Lehiaketa

7 desberdintasunak



Egilea: Uxue Lopez

Bidali erantzunak **abenduak 5** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



Telmo sariak jasotzen.

Aurreko hileko irabazlea, Telmo Olalla

Aupa Telmo, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta kamiseta zuretako! ZORIONAK!

Julen Leturiondo

Parrapas taldeko abeslaria



Hilabete honetan bete du lehenengo urteurrena Parrapas taldeak. Julenek hasiera-hasieratik dihardu taldean ahotsa jartzen, beste lau kiderekin batera: Marina, Egoitz, Alex eta Josu. Hurrengo kontzertuak Galdakao, Markiña eta Eibarren eskainiko dituzte.



Argazkia: Malen Jainaga

- **Gazia ala gozoa?** Gazia.
- **Makarroiak tomatearekin ala gabe?** Tomatearekin.
- **Erromantikoa zara?** Ez.
- **Umetako amets bat?** Sendagilea izatea.
- **Eta oraingo amets bat?** Musikaren bidez jendearen bihotzera ailegatzea.
- **Zure armairuan zer ez da falta?** Kamisetak!
- **Eta zer ez zenuke sekula jantziko?** Takoiak.
- **Abesti bat?** All I Want-Kodaline.
- **Musika talde bat?** Nogen.
- **Egin duzun azken zorakeria?** Parranda bat gaupasa izan arte luzatzea.
- **Irla batera zer 3 gauza eramango zenituzke?** Gitarra, betaurrekoak eta arroparen bat.

Izena: Julen
Abizena: Leturiondo
Jaioterria: Eibar
Jaiotze-data: 2000ko abenduak 20



- **Birziklatzen duzu?** Bai.
- **Sekula jo duzun plazarik zoragarriena?** Eibarkoa beti da onena.
- **Euskara osasuntsu dago?** Azken urteetako datuak, tamalez, kezkarriak dira.

- **Zer egin gehiago erabiltzeko?** Nork bere barruan kontzientzia sortu behar du eta bakoitzak erabaki beharko luke benetan zer egin nahi duen.
- **Euskaraldian parte hartuko duzu?** Bai! Belarriprest izango naiz, nahiz eta Ahobizi ere izan nintekeen. Uste dut Belarriprest-aren rola oso garrantzitsua dela.
- **Telebistako saio bat?** Gure kasa.
- **Ametsetako oporrak non?** Bali-n.
- **Nolakoa da zure egun perfektua?** Musikaz beteriko egun bat.
- **Zerk pozten zaitu?** Musika joteak, sortzeak, lagunekin egoteak.
- **Eta zerk haserretu?** Albiste nazkagarriak: Bolsonaro, Trump, bortxaketak...

berriak

Arrateko Andra Marikoak

Gaztañerre eguna ospatu genuen. Abestiak, bertsoak eta gaztainak izan ziren ospakizunaren muina. 6. mailakoak Udal liburutegira joan dira “Liburuen artean” formakuntza-tailerra jasotzera, eta horrez gain, Drogamenpeketasunaren prebentziorako tailerra egin dute eskolan. 1., 3. eta 5. mailakoek, “jolasean taldea dinamizatzen”, “jolasean erronkei aurre egiten” eta “jolasean elkar ezagutzen” tailerrak egin dituzte.

**Mogel**

ikastolako ikasle eta familiek Arimen Gauean hartu zuten parte. Ipurua auzotik ibili ziren “ziria ala saria”

eske eta esku jolasak eginez. Bestalde, Euskaraz Bizi lehenengo kanpainaren barruan, aste betez jo eta ke ibili gara euskaraz. Baina, saririk onena gure belarriek jaso dute, euskara baino ez dutelako entzun egun hauetan. Jada irrikitan gaude Euskaraldia noiz hasiko zain.

**Urkizuko 5.**

mailakoak Kanpetzuraino joan ziren. Han piszifaktoria bat ezagutu zuten. Zer bitxia, ezta?

Gainera, afaltzeko bakoitzak

amurra bat ekarri zuen; hori duk pagotxa! 3. eta 4. mailakoak Santimamiñeko koban eta Busturiako Ekoetxean egon ziren, eta 3B taldekoak Juan San Martin liburutegia bertatik bertara ezagutu dute. Bide batez, Eibar gaia lantzen ari direnez, herrian zehar itzuli bat egin zuten gure bazterrak ezagutzeko.



San Andresen iazko kurtso bukaeran jarri genuen martxan baratza. Uda igaro ondoren, irailean, berriro heldu genion lanari: belar txarrak kendu, uzta jaso, barazki berriak landatu eta jasotako kalabaza bat sukaldatu eta bizkotxo ederra prestatu genuen. Astero maila desberdinetako ikasleak baratza joaten gara eta bertan oso gustura aritzen gara.

**Aurten Amaña ikastetxeko**

liburutegiaren arduradunak txoko berezi bat prestatu digu guretzat, txikiontzat ere. Pozik joaten gara bertara ipuinak entzuterako eta ikusterako!!!

**Aldatzeko 4., 5. eta 6.**

mailakoak Denok Zu! sozializazio-kanpainako sensibilizazio-saio dinamiko bat egin dute. Helburua, enpatia eta tratatu onen lanketaren bitartez, indarkeria matxista jasaten duten emakumeen lekuan jartzea da, eta ondorioz honi aurre egiteko maila kolektiboan zein pertsonalean dugun arduraz jabetzea eta honen baitako esku-hartzea sustatzea da.



La Salle Isasiko 2. mailakoak Arotz-Eneara joan ziren naturaz eta ingurugiroaz gozatzera. Hilaren 12an Gaztainerre ospatu genuen eskolako patioan danbolinean gaztainak erreaz! Eta 1go, 2. eta 3. mailako ikasleak zinemara joan dira Albert pelikula ikusterako.

Herriko haurrek ere badaukate zer esan Euskaraldian

Azaroaren 23an abiatu eta abenduaren 3an amaituko da Euskaraldia, Euskararen Egunean. Euskara gehiago erabiltzeko antolatu den egitasmoa da eta Euskal Herriko 350 herritan gauzatuko da. 16 urtetik gorako herritarrek hartu dezakete parte bertan, baina horrek ez du esan nahi haurrak Euskaralditik kanpo geratzen direnik. Izan ere, euren papera garrantzitsua izango da guraso, anai-arreba, aitxitxa-amama edo nagusiagoak diren lagunak euskaraz egitera animatzeko.

Euskaraldian parte hartzen dutenek rol edo eginkizun bat aukeratu dute: Ahobizi, Belarriprest edo Bihotzgoxo. 11 egun horietan Ahobiziek euskaraz egingo die Ahobiziei, Belarriprestei eta euskara ulertzeko gai direnei; Belarriprestek euskaraz egiteko esango diete euskara dakitenei, euskaraz edo erdaraz erantzun arren; eta Bihotzgoxoek, nahiz eta euskara ez ulertu, pozik hartuko dute Ahobiziek eta Belarriprestek euren aurrean euskeraz jardutea.

Euskararen Eguna bi egunetan

Euskararen Eguna abenduaren 3an ospatzen dugu, baina aurten, bezperan ere izango da ospakizunik. Herri Bazkarialdia egingo da Untzagako karpan, iazkoari jarraituz. Paella goxoa bazkaldu eta gero Iratzar erromeriataldearekin gorputza mugitzeko aukera egongo da. Eta hurrengo egunean, abenduaren 3an, astelehena, “Hau hasiera besterik ez da” goiburua izango duen horma-irudia osatuko da Untzagan, 19:00etatik aurrera. Eta horrekin batera, Euskaraldian parte hartu dutenen esperientziak entzungo dira Untzagan bertan.





ni bai artista!

Festarako txapelak

Gabonak datoz laster eta festarako txapelak egiteko ideia polita proposatzen dizuegu oraingoan. Ideia erraz, azkar eta dibertigarria da. Gainera, zure gustura dekoratu ditzakezu!

Materialak:

- Kartulina txuria
- Urre koloreko borla
- Itsasgarria
- Zinta itsaskorra
- Arkatza
- Guraizeak
- Glasa erreala



Nola egin:

- 1.- Txapelaren txantiloia egin, kartulina txurira pasatu eta mozketa zehatzak egin.
- 2.- Txapelaren silueta marraztu arkatzarekin (zuek gustuko duzuen irudia, kasu honetan '5' bat). Kuterrarekin silueta moztu.
- 3.- Arkatz zorrotzarekin edo puntzoiarekin zuloak egin goma elastikoa sartzeko. Korapilo sendoak egin.
- 4.- Siluetaren barruko aldean bete glasa errearekin.
- 5.- Koloretako fideoak glasa errearen gainean jarri (glasa erreala lehortu aurretik).
- 6.- Borla jarri txapelaren goiko aldean.



Paperezko letrak

27 folio besterik ez dituzu behar eskulan hau egiteko. Hasteko, folioan hainbat lerro marraztu. Urdinak, non tolestu behar den jakiteko; eta arrosak, nondik moztu behar den ikusteko. Horrela, bi plegu lortuko dira. Erliebe-efektua lortuko dugu horrela, edozein logela dekoratzeko ideia ezin politagoa. Letrak egin eta gero, nahi duzun moduan jarri zure izena, mezu bat edo nahi duzuna adierazteko.



sukal-saltsan



Izokinez betetako kalabazina

Jaki gozoa eta osoa egiteko aukera daukazue, kalabazinaren bitamina eta mineralak izokinaren proteina eta gantz azidoarekin batzen direlako zapore ederra lortuz. Testura krematsua, zapore leuna eta aurkezpen erakargarria dauka jaki honek.

Osagaiak:

- 4 kalabazin handi
- 200 gr. izokin
- 150 gr. ogi (gogorra bada, hobeto)
- 2 arraultza
- 10 albaka-hosto
- Perrexil sorta bat
- Litro erdi esne
- Oliba-olioa
- Gatza



Nola egin:

1. Esnea katiluan bota, ogia sartu eta 15 minutuz bertan utzi.
2. Izokina egosi, gatzarekin eta, zuritu eta xehatu ondoren, hozten utzi.
3. Kalabazina erditik moztu eta mamia atera.
4. Esnearekin bigundutako ogia desegin eta kalabazinaren mamiarekin, xehatutako izokinarekin eta arraultzekin nahastu (ondo birrindu ondoren).
5. Perrexila eta albaka garbitu, zatitu eta beste osagaiekin nahastu. Gatz gehiago bota, beharrezkoa bada.
6. Hustutako kalabazinak prestatutako nahasketarekin bete.
7. Olio pixka bat bota erretilu batean eta kalabazinak bertan jarri eta gero, labean sartu 30 minutuz.



Marrubi eta madari postrea

Zapore bikainak irten daitezke fruituen konbinazioekin. Marrubia eta madaria nahastuz, adibidez, bitamina eta hidratazio plus bat eskuratzeaz gain, oso zapore gozoa lortzen da. Madari bat eta 125 gr. marrubi besterik ez dira behar irabiatu zaporetsua lortzeko. Lehenik eta behin udarea zuritu, hezurra kendu eta xafla meheetan moztu behar da. Zatitxoak ura irakiten dagoen ontzian jarri eta bost minutuz utzi. Bitartean, marrubiak irabiatu eta bahetik pasa haziak kentzeko. Udarearen mamia marrubiekin nahastu eta irakitako urarekin irabiatu pure homoginoa lortuz.



ALDATZE IKASTETXEKO 6. MAILAKO IKASLEAK INSPIRA STEAM IZENENKO PROIEKTUAN PARTE HARTZEN ARI DIRA. PROIEKTU HONEN HELBURUA GAZTEEN ARTEAN ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIARAKO INTERESA SUSTATZEA DA, BEREZIKI NESKEN ARTEAN; HORREZ GAIN, ETA BESTE GAUZA ASKOREN ARTEAN, LANBIDEEN INGURUAN DITUGUN ESTEREOTIPOAK GAINDITZEN ERE IKASTEN ARI DIRA ALDATZEKO IKASLEAK.



zer irakurri



Zer ari zarete ikasten Inspira Steam proiektuan?



Malen Etxeberria
11 urte

Estereotipoen inguruan gauza asko ikasi ditugu. Adibidez, askotan gertatzen zaigu, suhiltzaile berba entzuten dugula eta gizona datorkigula burura, eta ez da beti horrela. Emakumeak ere izan daitezke suhiltzaile. Neskak ahulak direla ere pentsatzen dugu askotan, eta ezin dituztela bete hainbat lanbide. Hori horrela ez dela ikasten ari gara.



June Alvarez
11 urte

Gauza interesgarri asko ikasten ari gara, adibidez, denok garela berdinak eta nahi duguna izan gaitezkeela, izan neska edo izan mutil. Lanbideei buruzko atala izan da orain arte gehien gustatu zaidana.



Martina Garate
11 urte

Lanbide batean lan egin nahi badugu hori lortzeko borrokatu behar dugula erakutsi digute. Ez daudela lanbide batzuk neskentzat eta beste batzuk mutilentzat, edozein izan daitezkeela edozer. Nik, adibidez, astroekin lotutako zeozer ikastea nahiko nuke, edo bestela Arte Ederrak.



Kemen Miguel
11 urte

STEAM hitzaren letra bakoitzaren atzean lanbide bat dagoela ikasi dut, adibidez:

S: Science (zientziak); T: Technology (teknologia); E: Engineering (ingeniaritza); A: Arts (arte) eta M: Math (matematika). Kontuan hartu behar dena ez da neska edo mutila garen, bakoitzak nahi duen lanbidea aukeratzea da garrantzitsua.



Eñaut Andres
10 urte

Estereotipoen atala asko gustatu zait. Bakoitzak nahi duena izan behar du, ez da inporta neska edo mutila izan, lanbidea aukeratzeko horrek ez du zerikusirik izan behar. Oso gai inportantea da, eta txikitatik ikasi behar dugu.



Ekain Sousa
11 urte

Gauza asko ikasten ari gara eta horietako bat da, askotan gertatzen dela emakume batek zerbait asmatu eta gero meritu guztiak gizonezko batek eramanten dituela. Hori gertatu da, adibidez, wifi, e-book, ontzi-garbigailua edo balen kontrako txalekoa asmatu zuten emakumeekin.



Munduko puzkerrik handiena 6 urtetik aurrera

Hipopotamoak, zebrak, gorilak, elefanteak eta askoz animalia gehiagok oso lehiaketa berezian parte hartuko dute... Nor izango ote da irabazle...?



Torlojuak 8 urtetik aurrera

Omar lagunaren hamsterra akrobazia istripu batean hil zela jakin zuen egunean, atsekabe handia hartu zuen Anek. Horregatik, etxekoei gauza bera ez gertatzeko, zerbait asmatu beharrean zegoela erabaki zuen. Axtuk okigam bat egitea bururatu zitzaion; torlojuak biltzen hasi zen horretarako.



107 kiwi 10 urtetik aurrera

Aroaren aita Pelix, alai eta maitagarria da, baina baita xeble samarra ere. Halako batean desagertu egingo da, eta Aroak, Txoribel bere belearekin, haren bila joan beharko du. Fantasiar eta xarmaz beteriko abentura dibertigarria asmatu du Unai Elorriagak.

'Poliziak eta lapurrak' (Amaña Herri Ikastetxea)

Amaña Herri Ikastetxeko ikasleek jolas klasiko bat proposatu digute: 'Poliziak eta lapurrak'.

NOLA JOKATZEN DA?

- Bi talde egin behar dira: poliziak eta lapurrak.
- Poliziek zora arte zenbatu behar dute eta lapurrak ezkututzen saiatuko dira.
- Zenbatzen amaitzerakoan, poliziak lapurren bila irtengo dira eta lapurrak ihes egiten saiatuko dira.
- Polizia batek lapur bat harrapatzen badu, kartzelara eramango du.
- Libre dagoen lapur batek kartzelan dagoen lapur bati bostekoa ematen badio, kartzelan dagoena libre geratzen da.

jolastokixan jolasian



BIDEOA:

<https://etakitto.eus/txikitto/amana-ikastetxea-jolasa.html>

SAN ANDRESAK 2018

Azaroak 29, eguna

17:30-18:30.- **Disko-festa** haurrentzat Arima Cool taldearekin Untzagan.

Azaroak 30, San Andres Eguna

09:30etik aurrera.- Nekazal azoka, bikotekako aizkolari-txapelketa, bertsolariak, trikitalariak, erromeria.

19:00.- Erromeria



Abenduak 1, zapatua INDUSTRIALDIA.

Umeentzako tailerra 17:00-19:00 Armagintza Museoa. Industria-arkitekturaren inguruko esperientzia ludikoa. Askota jota 20 ume (6-11 urte). Elebidun.



MUNDU OSOA EIBARREN Kulturarteko topaketa. Bidezko merkataritza, umeentzako jolasak eta tailerrak, ekitaldi musikalak eta munduko janariak. 11:30-23:00 Untzagan.

Abenduak 2, domeka

✓ Herri **Bazkaria**ldia (Euskararen Egunaren barruan). 14:30 Untzagako karpan. 16:30ean erromeria (Iratzar taldea).



Abenduak 3, astelehena

Euskararen Eguna. 19:00etan Untzagan **“Hau hasiera besterik ez da”** horma-irudia eta **Euskaraldia: kontatu zure esperientzia.**



Abenduak 15, zapatua

✓ **GIPUZKOAN GAZTE-TOUR**

Parrapas+Bagoaz+Twin Melody+DJ Txurru Astelena frontoian 18:00etan. 5€.



✓ **ZAPATUKO IPUINA**

Olentzero maitea (Leire Apika). 18:00 Umeen liburutegian.



Azaroaren 23tik abenduaren 14ra:

OLENTZERO, EKARRIKO DIDAZU IPUIN HAU?

Umeentzako plastika-jarduera. Lan guztiak umeen liburutegian jarriko dira ikusgai Gabonetan.



Abenduak 16, domeka

Gabonetako apaingarriak egiteko tailerra. 20 plaza. 11:30-13:00. Armagintzaren museoa. Izen-emateak: 943 708446 edo museoa@eibar.eus



ipuina

Oliba desberdina

Arratsalde normal batean, oliba pote bat zegoen mahai baten gainean. Barruan oliba asko zeuden, guztiak antsoaz beteta bat izan ezik, hezurra zuela. Antsoaz beteta zeudenak beti elharrekin zeuden, jolasten, jaten... baina hezurra zuena beti zegoen bakarrik eta inork ez zion hasurik egiten. Eta egun batean, antsoaz betetako oliba taldetxo bat, hezurra zuen olibarentz hurbildu zen. Eta berarekin sartzen eta iraintzen hasi ziren. Hezurra zuen oliba negarrez egon zen gau osoa.

Hurrengo egunean, hezurra zuen olibak, bakarrik jarraitzen zuen. Baina antsoaz betetako oliba bat hurbildu zitzaion eta galdetu zion zergatik zegoen beti bakarrik. Eta hezurra zuen olibak esan zion beti saiatzen zela haiekin jolasten baina batzuk pihutara bidaltzen zutela. Orduan antsoaz betetako oliba berarekin jolasten hasi zen, eta oso lagunak egin ziren, baina bat-batean... oliba potea mugitzen hasi zen gizaki batek eskuarekin eman ziolako eta potea lurrera jauzi egin zen. Oliba guztiak oihuka hasi ziren.


Potera bueltatu zirenean, antsoaz betetako oliba guztiak zauriekin eta gaixorik zeuden, hezurra zuen oliba eta bere laguna izan ezik. Denek galdetzen zuten zergatik zeuden haiek biak ondo eta beste guztiak gaizki. Orduan oliba hezurdunaren lagunak azaldu zien hezurra zuen olibak salbatu egin zuela. Berak, hezurra zuenez barruan, bere lagunaren gainean jarri eta ez zuen minik hartu. Guztiok harrituta gelditu ziren. Eta antsoaz beteriko oliba taldetoxa ausurtlatzen hasi zen eta azkenean altuan esan zuten, hori hezurra zela baina hezurra zuen olibaren lagunak defendatu egin zuen eta esan zien egia zela, beraren gainean jarri zela, eta gauza gehiago ez asmatzeko, hezurra zuen oliba haien baino askoz ere jatorragoa eta bihotz onekoa zela.

Azkenean hezurra zuen olibaren lagunak egin ziren guztiak. Berarekin sartzen zirenak ere. Eta guztiak hura errespetatzen hasi ziren. Indartsuena ezizenarekin deitzen zisten.

Historia honetan esan nahi dudana da, pertsona bat desberdina bada, ez dugula pihutara bidali behar edo ez garela berarekin sartu behar, oso pertsona jatorra izan daitekeelako.

Ibone Ciordia





zu margolari